



Salamankako Unibertsitatea

Salamancan Koldo Mitxelenarekin...

PATRIURKIZU

1967ko irailean *Filosofía y Letras* zeritzan karrerako lehen bi kurtsoak Patxi Altuna eta beste zenbait irakaslerekin Donostian EUTGn ikasi eta Zaragozan etsaminatu ondoren matrikulatu nintzen *Filología Románica* delako espezialitatean Salamancako Unibertsitatean. Egun batez Koldo Mitxelenaren aurrean presentatu ginen Ramon Garmendia eta biok Jesus Mari Mendizabal lagun eta aurkezle genuela, honek ezagutzen baitzuen lehendik. Ramon eta biok hartua genuen gela bat Libreros kalean. Berrogeita zazpi urte geroago

bisitatu dudanean Salamanca zaharreko kale hau interesgarrietakoa iruditu zait, Informatikako akademia bat dago nire gela zenaren azpian, gaur egun. Hogeita hamar pezeta egunean ordaintzen genuen bakoitzak lo egin eta arropa garbiketaren truke. Mitxelenak galdetu zidan ea zein espezialitate hautatu nuen eta nik *Románicas* erantzun nion. Ez zitzaion gaizki iruditu, eta galdetu nionean zer egin behar nuen euskaraz idazten ongi ikasteko erantzun zidan egunero ordu erdi batean aritzeko, ahalegintzeko zerbait idazten edozertaz.

Nire jardun idatziak ez du egunerokotasunik, ordea, beti izan ditu jauziak.

Mitxelena, ez izan arren hizkuntza erromanikoetan irakasle, Hizkuntza Preindoeuroparren katedra lortua baitzuen, bazeukan bere esku Antonio Tovarrek sortu *Cátedra Larramendi* deitua ere eta oroit naiz nola euskal idazleen zati bereziak gaitzat hartuz kurtso bat eman zigun. Oraindik gordetzen ditut eman zizkigun fotokopiak eta garai hartako apunteak, non honako testuak ageri diren: Milia Lasturkoaren eresia, Bernat Etxeparek Bernard Leheteri egin eskaintza eta *Contrapas-a* (1545), Joanes Leizarragaren *Testamendu Berriko "Heuskalduney"* (1571), *Atsotitzak eta Errefraua*k (1596), Juan Perez Betolazaren dotrinaren zatiak (1596), Estebe Materreren aitzin-solasa eta zatitxoak (1617), Joanes Etxeberri Ziburukoaren *Balea zaleen othoitzak Manual devotioenezcotik* hartuak (1627), Joanes Harambururen *Debocino escuarra, mirailla eta oracinotegua* (1635) liburuko *Tormentan*, Pedro Agerre Axularren *Gero* (1643), Bernard Gasteluzarren *Egia catholicac* (1686), Voltaire-ren *Tresora Hirur Lenguayetakua* (1620), Piarres Detxeberriren *Ixasoco navigacioneoa* (1677), eta Mongongo Dassançaren *Laborarien abissua* (1692) obren zatitxoak. Beraz, eta orden honetan emanak, XVIII. mendea arteko euskal idazle nagusien zati interesgarrienetariakoak. Oroitzen naiz gure irakasle zen José Antonio Pascual jauna ere joaten zela klase haietara eta segitzen zituela esplikazio guztiak interes handiz. Hala nola Alfontso Irigoienek... Ohi bezala beti zen orijinala planteamenduetan, antidogmatikoa, eta, batzuetan, norbaitek idatzitakoarekin haserretzen zenean, jenio bizikoa.

Hizkuntzaren historia pixka bat, Arnaud Oihe-narteren *Notitia Utriusque Vasconiae* liburuaz, eta bertan ematen den euskal deklinabide mugatu eta mugagabearen gaineko oharra. Esteban Garibaiz eta bizkaieraz. Claveriaren bertso antiapologista haietaz, *Burlatzen naiz Garibaiez / bai halaber Etxabez / zeinak mintzatu baitire / erdaraz Eskaldunetz. / Ezen zirenaz geroztik / euskaldunak hek biak/ eskaraz behar zituzten / egin bere historiak*. Erantsiz Larramendiren gaztelaniazko testuek onura franko ekarri ziotela euskarari, behar bezala baliatzeko euskara eta beste jende batzuk idaztera animatzeko balio izan zutelako. Egun ere nabarmen da euskara ez diren beste erderek balio dezaketela euskal gauzen zabalkunderako eta munduan barrena eza-gutarazteko euskaldunen fruituak.

Mila bostehun eta hogeita hamargarren urte inguruan Bernard Leheteren etxea Bordelen artista humanisten egoitza bilakatu ohi zen eran Mitxelenaen etxea Salamancan euskaldunena ere bilakatu zen, Matildek egiten zituelarik anfitrioi lanak tortilla paregabeak prestatuz.

Arantzazu 1968

Hala bada, egun batez Koldok eman zidan testu bat irakurtzeko eta ea zer iruditzen zitzaidan galdetu zidan. Niri gustatu egin zitzaidala eta tankera Xenpelarren euskararena aurkitu niola. Nola ez zidan esan norena zen testua, berea baitzen, barrenetik barrez lehertzen egongo zela pentsatzen dut, eta hala arrazoi biologikoa ager zedin (Ibon Sarasola, Ramon Saizabitoria, Rikardo Arregi eta beste zenbaitekin batera) Arantzazuko Batasunaren Biltzarrera gonbidatu ninduen.

Oroitzen naiz Pascual irakasleari Martineten teoriak entzun berriak nizkiola eta hizkuntzen ekonomiaz eta emankortasunaz memento batean aritu nintzela. Iruditu zitzaidan moderatzaile lanak oso ongi bideratu zituela Jose Maria Satrustegi apaiz nafarrak, eta Patxi Altunak idazle moderno bat proposatu behar zela esan zigun, alegia, Axularrek balio baldin bazuen XVII. menderako XX.era beste bat behar zela, eta egokiena *Euskararen batasun bideak* txostenaren egilea bera zela, hots, Koldo Mitxelena. Geroago hainbat aldiz esplikatuko zuen bezala, lapurtera, bertan zegoelako tradizioa (Axular), eta gipuzkera, euskararen indar soziologikoa nahasiz goi nafarrera zertxobaitekin. Erdialdeko euskalkien lotura entseatzu, gehien ezberdintzen zirenak zuberera eta bizkaiera zirenez.

Atsedendaldi batean Arantzazun paseatzen urte batzuk lehenago Jorge Oteizak bere apostoluak etzanda zizelkatzen eduki zituen lekutik —zeinen *Quosque tandem* (sic) kontsideratzen baitzuen Koldok "como un amasijo de lecturas mal asimiladas", hots, irakurketa gaizki hausnartuen nahaste-borraste bat— Piarres Xarritonekin, Iparraldeko apaiz sutsu, zakar, inkisidorearekin, honek gipuzkoar inperialismoaz eta beste gauzez esanak oraindik buruan dauzkat eta ez esateko hobeto dira. Hantxe ezagutu nuen ere Gabriel Aresti, eta honek esan zidalarik *ez izan hain abertzalea* esaldiak denbora luzez txundituta eta pentsakor utzi ninduela, nire lehen ipuin sarituaren aitzakiaz, hurrengo urtean 1969an *Euskal Olerti* liburuan argitaratuko zena zela eta.



Arantzazuko Ama santutegia

Hasiera batean arratsaldeko ordu gehienak fakultateko biblioteka orokorrean igarotzen nituen, gerora *Clásicas* eta *Románicas*-eko espezialitateek zeukaten liburutegi xumean pasatzen nituen orduak, bertan bazirelako zenbait euskal liburu eskura. Horrela gertuagotik ere ezagutu nituen irakasleak. Behin baino gehiagotan arratsalde iluntzeko bederatziak inguru zirenean lagundu izan genion Mendik eta biok Koldori Canalejas kalean zegoen bere etxeraino, bidean gerrako historiak kontatzen zizkigularik, hala nola geroago Eugenio Ibarzabalek bildu zituen *Koldo Mitxelena* (Erein, 1977) Eduardo Txillidaren portada daukan liburuan.

Gerra zibila

“... Eraman gintuzten, bada, Gernikara eta Foruko irteeran dagoen agustindarren komentuan ezarri. Hemen *Itxarkundia* batailoiaren partaide izan ginen. Gero handik Bermeoraino joan ginen *Batallón Saseta de ametralladoras*-ekin eztabaida-

rik izan genuelarik. Sesioak izan ziren, baina azkenean bermeotarrak, beraiek ere herritarrak izaki, “Plentxi” eta Tolosaldeko herritarrekin hobeto konpondu ziren donostiar “señoritoekin” baino. Halako batean Sukarrietara eraman gintuzten, hemendik berriro Gernikara eta kamioietan Ubidea aldera. Orduñako San Pedron eraso txiki bat gertatu zen, baina benetako helburua Villarreal zen, eta honen atzetik, Gasteiz, noski.

Gu ez ginen batere gudari onak, baina lagun batetik deitzen zituen bezala, *mandoak* askoz ere okerragoak ziren, esan nahi dut profesionalki, alegia, gerra kontuetan. Azken orduan gudaroste batzuk kendu ziren fronte honetatik, faxismo internazionalak Mondragoeri eraso egin behar ziola eta, ez dakit noiz eta nondik. Nire ustez, orain gertatzen den bezala, à la guerre comme à la guerre, jokatu behar da, hau da, baliabide guztiak, denak, ezarri behar dira helburua lortzearren. Irakurri berriak ditut Montaut-en ohoretan laudorioak. Ez diot ukatuko jakituririk, baina konpreniezinak egi-

ten zaizkit egiten omen zituen iruzkinak: “Total, lo mismo da. De una forma o de otra vamos a fracasar...”. Horrela pentsatzen duena intendentziara pasatu behar da, edo neurri gogorrak hartu berarekin...

Meabe II.ak inolako oztoporik gabe Nafarrateko gailurra zapaldu zuen. Ez dudana konprenitzen orain, bertatik igarotzen naizen bakoitzean, zergatik sartu gintuzten han, arratsaldeko hirurretan, zelai erabat ageri batetik edonork metraileta batez denak akabatzeko arriskupean elizako karpandorretik. Hantxe gindoazen bada astoak bezala kargatuak, mantak, motxilak eta armamentua. Armak izan ezik, beste dena zelaian gelditu zen sakabanaturik, ez baitziguten esplikatu bazirela gerran, pelotoiak, sailak, konpainiak eta batailoiak, eta bakoitzak bere egitekoa duela. Zehatza gainera. *Enfin*, Sasetari esker aurrera joan ginen eta derrepentean ibai batekin topo egin genuen, garai hartako mapetan agertzen ez zena eta oraingoetan *Angelu* izena daukana. Operazioen buru karabineren kapitan bat zen, Cueto izenekoa, Villarreal bertakoa. Hau eta bere anaia geroago Bilbaon gelditu ziren eta bertan fusilatu egin zituzten.

Ibaia ez zen oso zabala baina nahiko loditua zetorren, azaroaren 30a baitzen, eta hotzak akabatzen gintuen. Ni igeri egiten ohituta nengoen, eta korrontearekin bestaldera beheraxeago agertzea erraza zela pentsatu nuen, baina Zabalak, nirekin zetorren gudariak, bere burua bota zuen animaturik uretara ohartu gabe ez zekiela igeri egiten, eta aski lan izan genuen hura salbatzen. Ezin izango zitzaigun bidean ez bazituen enbor batzuk topatu. Ni blai bustita nengoen eta Constantino Araba batailoiko tenientearekin aurkitu nintzen, eta honen gizon gutxi batzuekin.

...Koldoren etxe ondoko kafetegi moderno batean geunden atsedean hartzen eta zerbeza batzuk edaten, eta txaketa poltsikotik zigarro paketea atera eta bati heldu zion:

—*Ducados* bat nahi?

Galdetu zion Jesus Mari adiskideari eta honek bere partetik *Celtas* pakete txikia atera zuen eta erretzen hasi zen *eztakitzenbatgarrena*. Koldok erantzun zion berehala, erantzuna esperatu gabe:

—Oso ongi, zerbaitetan berezi behar dira katedratikoak eta estudiante unibertsitarioak—. Eta jarraitu zion Villarrealgo erasoak kontatzeari.

... Gasteiz aldera ematen duten Villarrealgo etxe batzuen ondora iritsiak ginen ez genekiela zer

egin. Constantino tiro batez zauritu zuten sabelean. Berrito ibaian atzera jo behar izan genuen, aski zail eta penagarri gertatu zitzaiguna ez baitzuen bizirik iraun. Bestetik pasabidea, ibia aurkitua genuen pixka bat beheraxeago, baina gau iluna zen eta jadanik eta sakabanatuak genbiltzan. Sasetak ere erretiratu behar izan zuen zauritua, eta gelditu egin ginen. Goiz-alban berrito eraso egin genuen iritsi zitzaizkigun indar berriekin.

Villarrealgoa da arma berriak zituela euskal gudarosteak egin zuen lehen eraso, baina armak ez ziren aski, ezta behar bezain onak. Lehen munduko gerran erabiliak ziren eta maiz egiten zuten kale. Bestalde, garbi zegoen abioirik gabe ezer gutxi lortuko genuela, etsaiak faxista italiaroen eta nazi alemanen laguntza zuten bitartean. Zenbat gautan gerora kartzelan nengoela, gertakizun horiek oroitzuz, loak ezin hartu ninduen...

Horrelako istorioak eta bestelakoak kontatzen zizkigularik, denak benetan interesgarri, adi-adi egoten ginen, arreta handiz, era orotariko komentarioak gustura entzunez.

Julio de Urkijo mintegia

Salamancan 1970ean Licenciatura en Filología Románica titulua lortu nuen. Honek irekitzen zidan institutueta lan egitea. Donostiako Peñaflo ridan hasi nintzen irakasten Lengua y Literatura Española, Joaquín Forradellasen ekipoa. Hemen Manuel Agudek grekoa irakasten zuen eta inbitatu ninduen Gipuzkoako Plazan, Diputazioan, ASJU-k zeukan gela bisitatzera. Hantxe topatu nituen Luis Villasante, Anjel Irigarai, Juan San Martín eta beste. Salamancatik etortzen zenean Errenteriarra eta Donostiara, batzuetan ere bertan elkartzten ginen Koldorekin.

Hantxe ikusi nituen liburu anitzen artean Meilleten *Les langues du monde*, eta Pierre d'Urteren hiztegiaren eskuizkribuaren argazkiak, zeini buruz aurkeztu nuen 17 urte geroago nire tesia. Manuel Agudek 1950ean hasi *Diccionario crítico etimológico de la lengua vasca*ren fitxak idazten jarraitzen zuen Löppelmann-en alemanezkoaz lagundurik.

Luis Villasanterekin komentatu nuen euskal autore klasikoen sakabanaketa eta Akademiari zegokiola bilduma on bat egitea... Izendatu zutenean Euskaltzaindiko buru aitortu zidan nola arazo askotan Koldok, ezezkoa eman baitzion karguari, Salamancako askatasuna eta lan egiteko lasaitasuna nahiago zuenez hemengo saltsa-mal-



Arantzazuko apostolua

tsak baino, nola lagundu izan zuen aholkuekin eta oharrekin.

Haranburu editorialean 1978an gaztelaniaz argitaratu nuen liburua, batxilerreko ikasleentzat prestatua. *Lengua y Literatura Vasca* deitu nuen eta “Koldo Mitxelena maisuari” eskaini nion. Bi parte zituen. Lehenean hizkuntzaren gaiko sarrera ematen zen, eta bigarrean euskal literaturaren historia testuen bidez; testuok euskaraz eta gaztelaniaz zeuden. Poesia, teatroa, nobela, saioa, eta beste generoak aipatzen ziren modu xume eta xaloan. Jose Azurmendik *Egin* egunkarian 1978ko azaroaren 19an, igandez, artikulua bat aski interesgarria atera zuen erreseina moduan edo, aitzakiatzat harturik nire liburuttoa titulu honekin: *Saioa dela eta, euskal literaturan*. Noski, Montaigne aipatzen zuen, baina baita ere Axular, Etxepare, edota Mitxelena...

Institutuetako lehen euskal katedrak

1979an Autonomia Estatutua onartu zelarik, beste dekretu batek (1979-V-10) euskarazko lehen katedrak institutueta bideratzen zuen (“con el objeto de la progresiva incorporación de la enseñanza de la lengua y cultura vasca a los planes de estudio de Bachillerato se procederá a la creación de cátedras de Lengua y Cultura Vasca en los Institutos de

Bachillerato”). Prestatu zuen 59 gairen zerrenda bat Koldo Mitxelenak, eta ahalik eta sakonen prestatzeari heldu genion. Deialdiak honelaxe zioen, “Los ejercicios escritos se realizarán en Euskera Batua”. Epaimahaia honakoek osatu zuten: buru Koldo Mitxelena, Unibertsitateko katedraduna, beste lauak batxilergoko institutueta katedradunak ziren: Rosario Igeregi, Lupe Artola, Agustin Zubikarai eta Ignazio Usabiaga. Proba batzuk pasatu genituen. Gogoratzen naiz tartean bazirela bi testu komentario. Bat Iban Tartasen *Onsa hilceco bidia* (1666) liburutik hartua eta bestea Bernardo Atxagaren *Ziutatea* (1976) eleberritik.

BOEn agertu zen 1980ko irailaren bateko ordenak honelako zerrenda eta ordena argitaratu zuen: Javier Quintana, Alfonso Irigoien, Patricio Urquizu, Jose Antonio Mujica, Juan Antonio Letamendia, Miguel Arregui, Javier Alcibar, Miren Egaña eta Javier Olarra. Bakoitzak zuen destinua jada hautaturik. Nik Erreterriakoa aukeratu nuen, dudatan egon arren Hondarribia eta Donostia artean, baina nengoen lekuan jarraitzea erabaki nuen. Hamar hauetarik batzuek gero unibertsitatera edo itzulpengintzara joko zuten, baina izan ziren batzuk nola Mikel Arregi, beti fidel batxilergoko destinoari eutsi diotenak.

Bordeleko Unibertsitatea

Bordeleko Unibertsitatean irakasteko inbitazioa egin zidan Jean Haritschelharrek eta hama-bost urte institutueta baneramanez, nire buruari esan nion: zergatik ez? Proba dezagun aukera berri hau, eta horrela ibili nintzen joan eta etorri Bordeletik Lezora, eta hasi nintzen tesiarekin seriooki. Tesia Gasteizen aurkeztu nuen 1987ko maiatzaren 19an Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean eta *cum laude* saritu ninduten. Epai-mahaia honakook osatu zuten: Jean Haritschelhar lehendakari, Patxi Goenaga idazkari, eta bokalak: Patxi Altuna, Ibon Sarasola eta Pello Salaburu. Beti esan ohi da tesia pasatzeak ekartzen duela une txar bat irenstea, trago txarra, baina pasatu beharra doktore delako titulua lortzeko. Ohitua nengoen trago txarragoetara eta beraz ahalik eta defentsa txukunena aurkeztu nuen.

Patxi Altunari gogorxko iruditu zitzaion Urteren frantses hitzak *Grammaire Cantabrique Basque* delakoan idatziak oroitaraztea, “amaren sabeletik bertatik ez zuela Erromako elizaren superstizio guztietara inolako atxikimendurik”. Poztu nintzen Sarasolak esan zuenarekin, alegia, halako tesi motak zituela gustuko. Salabururen lexiko oharrak funts handirik gabekoak iruditu zitzaizkidan. Beraz, aurrera joan ginen, bada, garai hartan ohikoa zen bezala, *Portalónera*, eta ohartu nintzen Koldo ez zegoela bere tenplerik hoberenean. Ohi bezala deus gutxi jan zuen. Edan dexente.

Patxi Altunak galdetu zidan ea zer asmo neukan eta erantzun nion ez nekiela garbi, oraingoz Bordeleko Unibertsitatean nintzela irakasle, institutuko katedraren eszedentzia batekin. Dena den, ongi etorriko zitzaidala titulua eta nahi banuen EUTGn izango nuela lana, erantzun zidan modu gozo eta amultsuan.

XIII. Azkue sarietara aurkeztu nuen tesia, eta geroago prentsak jaso zuenez Jose Ramon Etxebarria harrিতa agertzen zen ikerkuntza arloko saria jasotzeko aurkeztu ziren hamahiru ikerlanen kalitate-maila goragatik. Ahozko elkarrizketa ere pasatu genuen eta azkenean Bilbo Aurrezki Kutxak ematen zuten saria bitan banatu zuten, erdibana Iñaki Irazabalbeitiari prekozenoei buruzko tesiatik eta niri Pierre D’Urtez egin lanagatik. Azkenean latin-euskara hiztegia berregituratzean euskara-frantsesa-gaztelania-latina bilakatu nuen, eta bi mila hitz erabilienak, Donostiako Informatika fakultateko laguntzari esker, eman nituen. Arlo berezitueta euskara modernotzeko ahaleginetan

genbiltzan unean biziki lagungarri izanen zen Urteren hiztegia. Larramendirenaren aitzindari.

2013ko urrian Shirburn gazteluan ordu arte egondako Pierre d’Urteren *Grammaire Cantabrique* eta *Dictionarium Latino-cantabricum* eskuizkribuak Londresen Southebyko enkante batean 72.000 eurotan bereganatu zituen Gasteizko Sancho El Sabio fundazioak. Jakin nuelarik enkantearena deitu nion Koldo Mitxelena Kulturuneko arduraduna zen Frantxis López Landatxeri. Bera jakinaren gainean zegoen ere, baina antza denez, Gasteizko Kutxa aberatsago zegoen une horretan Gipuzkoakoa baino. Bibliaren *Ethorkia* eta *Ilkhitcea*-ren itzulpena duen eskuizkribua Bilboko notario bibliofiloa den Jose María Arriola ezagunaren liburutegian dago.

UNEDen

1988-89 ikasturtean Madrilen hasi nintzen lanean UNEDen Filologia Fakultatean, eta bertan egin dut lan jubilazio garaia iritsi zaidan arte. 1990.ean lortu nuen Titularitatea, hau da, *Professor Titular de Lengua y Literatura Vasca* izatea, eta okasio horretarako *Introducción a la Filología Vasca* liburua (*Cuadernos de la UNED*, 1990) aurkeztu nuen. Honen atarikoan Jenaro Costas dekanoa eta geroago Errektore izango zenak hitz hauek idatzi zituen:

Personalmente quisiera, desde esta sencilla presentación, dedicar un recuerdo de homenaje y gratitud al profesor Luis Michelena, uno de los padres de la Filología Vasca, destacado lingüista y filólogo clásico, que ha dejado una huella profunda en todos los que tuvimos la suerte de disfrutar de su magisterio, su amistad, su aguda crítica y de su innata “libertas”.

Madrid, septiembre de 1990.

Hemen argitaratu ditut zenbait lan gaztelaniazko irakurlearentzat *Introducción a la filología vasca* (1991), *Gramática de la lengua vasca* (2. ed. 2007), *Historia de la literatura vasca* (2000), *Teatro popular vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición* (1007), eta *Teatro vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones* (2009), zeinak izan baitira alde bategatik maisuaren irakaskintzen dibulgazio eta bulgarizazio ahaleginak, eta bestetik hark gutxi ikertu alorren (teatroa adibidez) sakontze lanak.



Gutunak

Beti iruditu zait idazleen bizitza eta obrak aztertzeke iturri interesgarrienetakoa gutunak direla. *Scripta manent*. Idatziek diraute. Baina oraingo tresneria modernoekin gordetzeko aukera izan arren, ez dakit galtzeko zoria ere errazegi duten. Hala bada XX. mendeko hiru idazle garrantzitsuenetakoen gutunak argitaratu ditut, euskara eta euskal literaturaren argigarri suerta dakizkiguketelakoan: *Jon Miranderen Gutunak (1948-1972)* (Susa 1995); *Andima Ibiñagabeitia. Erbestetik barne-minez, gutunak (1935-1967)* (Susa 2000), eta *Koldo Mitxelenaren Euskal Gutunak (1951-1984)* (*Bilduma* 18, Errenteria 2004).

Azken honetan *Koldo Mitxelena eta Matilde Martinez de Ilarduyari esker onez* eskainian, 236 gutun jaso ditut. Badakit askoz gehiago ere idatzi zituela euskaraz eta zer esanik ez gaztelaniaz, edota frantsesez. Eta bertako laburtze hitzetan honakoxea nioen:

Lan honetan Koldo Mitxelenaren Opera Minora lirarekin 236 gutun biltzen, aurkezten eta aztertzen dira. Gehienak argitaragabeak (Jose Maria Satrustegi moldiztegiratu gutxi batzuetaz at) eta Donostiako KM kulturuneko liburutegian hala nola Euskaltzaindikoan aurkituak. Bere tipitasunean, ordea, badute gutun hauek interes berezirik, alde ezkutu bat ezagutzeko, alegia, bai

zenbait kultura gertakizunen, bai zenbait libururen eta artikulu-poema-itzulpenen argitaratze aurreko gora beherak argi berriz ikus daitezkeela. Egan literatur aldizkariko zuzendari gisara zein nolako lanak burutu zituen, frankismoaren urte zail eta gogortsuenetan animatzaile eta bultzatzaile moduan, eta irakasle bezala zein era zehatz eta zorrotzean zeramatzan ikasgai, biltzar eta jardunaldiak. Halaber, eta besteak beste, zein irizpide taxuzkoz antolatu zuen euskararen batasunerako hain garrantzizko izan zen 1968ko Arantzazuko Biltzarra ikus dezakegu gutun hauen bitartez. Hizkuntzalari ez ezik, literatur kritikari, kultur eragile nekaezin eta idazle aparta agertzeaz gain, bidenabar gutunotan jakintsuaren irudia samurberago egiten zaigu.

Hona bada gizonaren bi aldeak, alde baikorra eta ifrentzua. Alde batetik samurbera adiskideekin, umore onekoa, eta bestetik jenio bizikoa, errepuntua zeukana, agian osasun ezak eragina. Kritikoa, baina Jakobsonek zioen eran, Kongresuak eta Jardunaldiak zenbat eta eztabaida eta puntu ezberdinetarako talka leku handiagoak direnean orduan eta emankorrakoak dira. Errenteriako institutuan euskara irakasten izan zen nire adiskide Mikel Arregik dioen bezala, Koldo Mitxelenari egin diezaiokegun omenaldirik onena irakurtzea da.